

ENTZUN



Mikel Laboa. *Lekeitiokoak*. (Elkar). Grabazio kontuetan, Laboak du lojika haundirik erabiltzen. LP bakar bat, 1985ean kaleratutako 6 hura, hartu liteke produktu erabat nobedoso bezala, beste guztiak zuzenean eskainitako kantuen bildumak bait dira. Bai hasierako *Euskal kanta berria* hura (1979), bai geroztiko *Lau Bost* (1984), baita oraingo *Lekeitiokoak* disko bikoitz hau ere.

Hain zuzen, *Lekeitiokoak* izen hori da aspalditik, 1970ko hamarkadaren hasiera ezkerotik, Laboak bere esperimentu arriskutsuenak izendatzeko erabili duen hitza.

Berarekin urteak egin dituen Joan Artzek, kantakera harrigarri horri

Iñaki ZARATA

buruzko teorizazio bat eskaini zigun Laboaren aurreneko disko bikoitzean, 1974eko *Bat Hiru* hartan. Hango zenbait pasarte disko honetantxe irakur daitezke berriro ere, eta ikus dezakegu nola Artzeren ustez donostiar kantugile honek baduen zerikusrik Roy Art eta Picasso bezalako artista berritzaileekin.

Diskoaren hasieran aspaldiko *Bag-a-Biga-Higa* dugu, bere *crescendo* maitagarriarekin. Ondoren, esperimentu bat Brecht-en poema bati buruz: *Dialektikaren laudorioa*. Gero, *Haika mutilaren* bertsio bat, oso fina, Iñaki Salvadorrek pianoa jotzen duen larrik.

Bigarren aldean berriz, *Gernika* zirrarragarri bat hasteko. Nobedade batekin: tartean ume talde bat kantuan eta inoiz Tapiarén akordeoia ere bai. Kantuaren bukaera aldera, Tapiaren trikitixa-pieza espektakular bat.

Eta gero *Komunikazio-Inkomunikazio* luze bat, ia-ia ordu erdikoa. Kanta honta, Laboa ironiko eta katxondo bat da. Alunari amaiera emateko, aspaldiko *Orreaga* eta askoz berriagoa den *Itsasoa eta lehorra*. Gainera, diskoan bada Bernardo Atxagaren esperimentu literario bat.

Benetako altxorra disko hau.